

Filotearen laborategia: Saleskoren euskarazko lehen itzulpenak *puritas* elokutiboaren arragoan¹

(Filotea's lab: elocutive *puritas* in the two earliest Basque translations of Sales)

Bijuesca Basterretxea, K. Josu
Deustuko Unib. Gizartea eta Giza Zientzien Fak. P. K. 1.
48080 Bilbao
josu.bijuesca@deusto.es

BIBLID [1137-4454 (2011), 26; 27-57]

Jaso: 2011.04.13
Onartu: 2011.12.30

Lan honetan hitz hautaketari dagokion puritas edo garbitasunaren bertute elokutiboa aztertu da Frantses Saleskoren Filotea ospetsuaren euskarazko lehen itzulpen bietan, Pouvreau eta Haraneder itzultzaile izan zituzten haietan. Horretarako garbitasuna arautzen duten lau irizpideak arakatu dira: arrazoia (ratio), antzinatasuna (vetustas), autoritatea (auctoritas) eta usadioa (consuetudo).

Giltza-Hitzak: Filotea. Puritas. Garbitasuna. Neologismoak. Maileguak. Sales. Pouvreau. Haraneder.

En el presente trabajo se estudia la virtud elocutiva de la puritas o pureza correspondiente a la selección de palabras en las dos primeras traducciones de la famosa Filotea de Francisco de Sales, que tuvieron por traductores a Pouvreau y Haraneder. A tal fin se han examinado los cuatro criterios que rigen la puritas: razón (ratio), antigüedad (vetustas), autoridad (auctoritas) y el uso (consuetudo).

Palabras Clave: Filotea. Puritas. Pureza. Neologismo. Préstamos. Sales. Pouvreau. Haraneder.

Dans ce travail, on étudie la vertu ellocutive de la puritas ou pureté correspondant à la sélection de mots dans les deux premières traductions de la fameuse Filotea de François de Sales, qui eurent pour traducteurs Pouvreau et Haraneder. A cette fin on a examiné les quatre critères qui régissent la puritas: raison (ratio), ancienneté (vetustas), autorité (auctoritas) et l'usage (consuetudo).

Mots-Clés : Filotea. Puritas. Pureté. Néologisme. Prêt. Sales. Pouvreau. Haraneder.

1. Lan hau "Edición digital múltiple de la Philotea de san Francisco de Sales. Metodología para la edición de textos múltiples mediante etiquetado". (Proyecto Andrés de Poza) ikerkuntza egitasmoaren emaitzen artean dago. Carmen Isasik zuzentzen duen Andres de Poza Egitasmoak Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza jaso du (HU2007-23).

1. SARRERA: ELOKUZIOAREN BERTUTEAK

Jakina da euskarazko literatura idatzia berandukoa dela inguruko erroman-tzeen literaturaren aldean. Hala ere, literatura horien kezkak elokuzio erretoriko-az edo, nahiago bada, estiloaz, ez zaizkio izan arrotz euskal literaturari ere. Eus-kara idatzizko emaitzetaz hausnartu izan dutenek tradizio erretorikoaren kontzeptuak sarritan erabili izan dituzte euren eta inoren diskurtso ezaugarriak epaitzeko irizpide gisa. Garibaik, esate baterako, berak osaturiko errefrau bildu-maren atarian zera dio euskara dela eta: “debaxo de pocas palabras, es copiosa en sentencias morales, como lo manifiestan sus antiguos refranes” (Urquijo, 1919: 2).

Oker ez bagara, Arrasateko semea euskarak estilo lakonikorako berezko joe-ra duela aditzera ematen ari da. Errefrau bilduma denez gero oraingoan euska-raz eskaintzeko duena, historiagileak bilduma apal hori ahalik eta modurik pres-tigiotsuenean aurkezteko asmoa du. Horretarako Erasmok garai klasikotik berreskuratu eta indartu zuen *copia* kontzeptua Garibaik bereganatu eta moda-ko bihurtzen ari den lakonismoaren mesedetan jarri du, euskarak ere estilo lako-nikoarekin bat egiten duelakoan bere errefrau hizkuntza-euskarriz estu baina esanahiz ezin aberatsagoekin.

Garibairena bezalako epaiak iraunkorrek gertatu ziren nonbait, oraindik XVIII. mendearen amaieran halako iritzirik badela ohartzen bagara. Izan ere, Jean Philippe de Belak ikuspegi beretsua erabili du Senekaren pasarte itzuli berriak epaitzeko:

Je sens qu'il faudrait un volume entier pour parler de toutes les regles de cette langue, mais comme cette prolixité ne serait que très ennuyeuse pour ceux qui n'y prennent aucun intérêt, je donnerait seulement quelques exemples de laconisme et de l'élégance du basque, dans lequel je traduis quelques réflexions de Sénèque que j'ai trouvé sous la main (ikus Urkizu, 1992: 321-322)².

Senekaren elokuzio sententziatsua estilo lakonikoaren eruedetako bat zen, Tacito eta Salustiorekin batera (Fumaroli, 2002: 158-161). Ez da harrigarria, hortaz, Belak hori aukeratu izana itzultzeko. Baina gogoan izan beharrekoa da itzultzaileak aitorturiko asmoa: euskararen beraren elegantziaren eta lakonismo-aren adibideak eskaintzea itzulpenaren bitartez.

Halakoetan euskararen elegantzia frogatzeko asmoz jo izan da, dirudienez, lakonismoaren azarnak hizkuntzan bilatzera, euskarari egotzitako elegantzia gabezia eta emaitza literario idatzien urritasuna zuritu nahirik Garibairen kasuan, edota Trento ondorengo Eliza katolikoaren babespean garaturiko emaitzetatik urruntzeko Belarenean. Baina hizkuntzaren apologia egitearren, tradizio literarioa-ren gabeziak zuritu beharrean tradizio horretan bertan murgildu direnek bestelako

2. Pariseko Liburutegi Nazionalen gorde den eskuizkributik bilduriko aipua da Urkizuk emanda-koa. Belako zaldunaren eskuizkribuak honako titulua du: *Essai sur l'histoire de la langue basque*. Eskuizkribuari buruzko argibideetarako ikus Urkizuren beraren artikulua (Urkizu, 1992: 321; 5. oh.).

emaitzarik aurkitu izan dute, lakonismoaren kontrako ugaritasuna bera ere identifikatzeraino. Hala egin zuen Larramendik, esate baterako, Axularren Gero elokuizioaren bertuteez gainezka irudikatu zuenean Hiztegi Hirukoitzaren sarreran: “El bascuence [Axularrena] es elegante, propio, puro, abundantísimo” (Larramendi, 1745; 1: XXXV). Bertute horien artean ugaritasuna –*copia* alegia– nabarmendu du, baina oraingoan Erasmok estimatzen zuen eran ziur asko, joera zizeronianoari dagokion *rerum ac verborum copia* gisa, eta goragokoek aldarrikaturiko lakonismotik urrun.

Era batera nahiz bestera, *copiarekiko* kezka elokuizio erretorikoaren apaindura edo *ornatus* delakoari dagokio nagusiki. Apaindura zaindu beharreko bertuteen arteko bat den arren, idazle euskaldunek lehentasuna eskatzen zuen bertute elokutibo oinarrizkoagorik bazela uste zuten, batez ere Euskal Herri penintsularrean ordura arte lorturiko emaitzak epaitzean. Lapurdiko literaturaren berri eman ondoren begiak mugaz honako aldean jarrita, emaitza etsigarriagoak aurkitu zituen Larramendik, ez soilik liburu inprimatuen multzoa dotrina banaka batera murrizten zelako, baizik eta haietan erabilitako hizkuntza zabartzat jotzen zuelako ere, dotrina horiek “con poca atención al vascuence” idatzi izan direlakoan, Lapurdiko liburu apainak ez bezala (Larramendi, 1745; 1: XXXV).

Hortaz, tradizio erretoriko-gramatikalak eskatu ohi zuenez, hizkuntz garbitasuna edo *puritas* delakoa lehenetsi beharrekoa zen elokuizioaren bertuteen artean. Garbitasunari buruzko kezka inguruko hizkuntza erromantze guztiek erakutsi zuten, lehenago latinak bezala. Eredu idatzian beranduago sartua izanik, ez da harrizkoa idazle euskaldunek ere kezka bera agertzea. Izan ere, kezka hori are handiagoa zatekeen euskaldunen artean estatu hizkuntzetan babesturiko idazle askok euskararen garbitasun gabezia salatzen baitzuen barbarismoz eta solezismoz beterik zegoelakoan. Euskal Herri penintsularreko euskaldunen erantzuna gaztelaniaz idatziriko apologiaren aldera lerratu zen bitartean, Euskal Herri kontinentalean euskarazko literatura idatziaren sorrerarako baldintzak baliatu egin ziren bai lan berriak ekoizteko bai eta beste hizkuntza batzuetan sorturikoak euskaratzeko, gizarte baldintzek era horretako literaturaren agerpena errazten baitzuten, Lapurdin batez ere (Oihartzabal, 2001). *Filotea* ospetsuaren euskarazko lehen itzulpen biek aukera ezin hobea eskaintzen digute *puritas* horrekiko kezkan arakatzen hasteko.

Filotea izenaz ezagunagoa den *Introduction à la vie dévôte*, XVII. mendearen hasieran San Frantses Saleskoak idatzia, garai hartatik eta XIX. mendera bitarteko euskal itzultzaileen artean Eliza katolikoaren lanik estimatuenetakoa izan da. Itzulpen kopuruari adituz gero, behar bada Kempisen *Imitatio Christi* soilik egon liteke Saleskoaren aurretik³. Zentzuzkoa da pentsatzea Pouvreauk XVII. mendean eta Haranederrek XVIII. ean ere hizkuntzaren garbitasunarekiko kezka bazutela, haien idazle garaikideek zuten bezala, Axularrek eta Sarako Etxeberriek esate baterako.

3. Zilegi bekigu Saleskoren lehen euskarazko itzulpenen testuingurua aurrezte haren, berriki agerturiko beste lan baterako egina baita. Testuinguru horren berri jaso nahi duenak, jo beza bertara (Bijuesca, 2009).

Jakina denez, garbitasuna bertute elokutiboen arteko bat da. Tradizio erreto-rikoaren arabera elokuzioaren bertuteak ondorengoak dira: *puritas*, *perspicuitas*, *ornatus* eta *aptum*, edo garbitasun, ulergarritasun, apaindura eta egokitzapen edo dekoroa hurrenez hurren (Lausberg § 460). Garbitasuna aztertzea izanik gure helburua, onartu bekigu bertute hori arautzen duten irizpideak gogora ekar-zea: *ratio*, *vetustas*, *auctoritas* eta *consuetudo* edo arrazoia, antzinatasuna, autoritatea eta usadioa, hurrenez hurren. Irizpide guztiak ez dute indar bera, ostera. Nagusitasuna usadioari aitortzen zaio (Kintiliano, 1.6.1; Lausberg § 465). Arau horiexek izango ditugu irizpide guk ere ondorengo lerroetan hitz hau-taketaren azterketarako hurbilketa metodologiko gisa.

2. GARBITASUNERAKO ARAUAREN IRIZPIDEAK HITZ HAUTAKETAN

2.1. Arrazoia (*ratio*)

Arrazoiak, hizkuntz garbitasunerako irizpide den heinean, analogia du oinarri. Hizkuntz egituren antzekotasuna ontzat emanik, analogiak hizkuntza horretan ezaguna denetik ezagutzen ez denerako jauzia egiteko era eskaintzen du (Laus-berg § 466). Hortaz, prozedura analogikoak berebiziko garrantzia izan du neolo-gismoen sorreran. *Filotearen* lehen itzultzaileen artean analogiaren araberrako arrazoiaren presentzia ez da nolana hiko hitz hautaketan. *Pouvreau* itzultzailea hiztegi-gile aipagarria ere izan zen. *Pouvreau*ren hiztegi-gintzan analogiaz sorturiko lexikoaren ugaritasuna Joseba Lakarrak aztertu du (Lakarra, 1995; Lakarra, 1996, besteak beste). Laster ikusiko dugunez, hiztegi-gintan ez ezik Frantses Sales-koren itzulpenean ere maiz erabili ditu *Pouvreau* horrelako hitzak.

Pouvreau neologismoak txertatzen dituen bere itzulpenetan, hiztegi-gintza garaturiko planteamendu teorikoak praktikara eramaten ari da. Hiztegi-gintza, hain zuzen ere, ugari dira ondare-zko erro batean oinarriturik sortutako hitzak euskal morfologia eta eratorbidearen ezagutzari esker landu izan direnak. Printzipio hori bere hiztegi-gintza eredu gisa erabilitako César Oudinen *Tesoro de las dos lenguas* bildumatik ikasiko zukeen *Pouvreau*ak, Joseba Lakarrak argitu duen bezala:

Iturrian (Oudin-engan) zituen gero berean oinarritzat ikusten ditugun hitz-fami-liak; usu iturriarenak progotxatuaz eraikitzen ditu bereak eta, iturriak bezala, morfolo-giaz eta eratorpenaz dakiena baliatzen du hitz-familia horietan kokatzen dituen ber-bak, zaharrak eta berriak ematean (Lakarra, 1996: 20).

Kerejetak Oudinen aztarnak *Pouvreau*ren hiztegi-gintza aurkitu zituenetik (Kere-jeta, 1991), analogiak hiztegi-gile eta itzultzaile honengan izan zezakeen eragina ageriko egin zen. Hitz berriak sortzeko jarduera hori dela eta, *Pouvreau* Larra-mendiren aitzindaritzat jo daiteke (Lakarra, 1996: 28). Haraneder, bere aldetik, neologismoekiko zaletasun hori berresten ageri zaigu bere itzulpenean.

Filotearen euskarazko lehen bertsioetan arakatzea neologismoekiko zaletasun hori erakusteko biderik zuzenena izango da. Horretarako eratorbidez eta konposizioz sorturiko zenbait hitzen erabilerari arreta berezia jarri diogu⁴.

2.1.1. Eratorbidez sorturiko hitzak Filotea euskaratuetan: zenbait adibide

Eratorbidez sorturiko hitzen azterketara hurbiltzeko prozedura bi jorratuko ditugu. Lehenengo *-(t)asun*, *-rasun*, *-resun* atzizkidun hitz batzuei jarriko diegu arreta. Ondoren frantsesezko hitz abstraktu pare bat (*bienséance*, *ravissement*) nola euskaratu diren aztertzeko aukera izango da, bide horretatik abiatzeak ere eratorbidez sorturiko hitzak aurkitzeko abagunea eskainiko baitugu.

Aipaturiko atzizki horretaz baliaturiko hitz bat *Pouvreauk* soilik darabilena, *Orotariko Euskal Hiztegiaren*⁵ arabera, *ponpiresun* dugu. Hona hitzaren agerpena:

Sales	Pouvreau	Haraneder
Roy d'orgueil, o roy de malheur, esprit infernal, je te renonce avec toutes tes vaynes pompes ; je te deteste avec toutes tes oeuvres.	O erregue urguillua, incontro gaitzesco erreguea, lfernuco espiritua, arnegatce diat hitza hire vanaloriasco pompiresunequin : madaricatce aut, eta hire obra guciac.	O Satan urquilleriaco erregue çorigaitzezcoa! lfernuco ispiritu traidorea, arnegatu diat hitaz, eta hire vanitatez : lastima diat hire obra guciez.
Les jeux, les balz, les festins, les pompes , les comedies, en leur substance ne sont nullement choses mauvaises ains indifferentes.	Locoac, dansac, banquetac, ponpiresunac , comediac beronez ezтира nihilataco maneraz gaixto; aiticic ez on ez gaixto dira.	Jocoa, bala, banquetac, berreguiñçac , comediac, bere içatez ez dire gauça gachtoac, aiticic indifferentac dire.
sa devotion croissoit emmi les pompes et vanités ausquelles sa condition l'exposoit.	haren devocionea emendatcen baitcen, hura bere condicioneac sararacitcen çuen ponpiresunetan eta vanalorietan.	emandatuas baicen es baitzoan, bere estatuac eta condicioneac ekhararacitzen eta sar-arasten çuen pompien eta vanitaten erdian.

4. Aldez aurretik esan beharra dago era honetako hitzak oso ugariak direla esku artean ditugun itzulpen bietan. Hitz horien azterketa sistematikoa ikerketa monografiko baterako gai izan liteke baina hori gure lanari jarritako mugetatik at geldituko litzateke. Hona dakarguna hizkuntz-garbitasunaren trataera erakusteko nahikoak diren adibide bakan baina adierazgarrien arakatzea da.

5. Aurrerantzean OEH laburduraz aipatua agertuko da. Lan aipatuen artean Euskaltzaindia sarrerepean ageri da.

Badirudi izenaren eratorbiderako oinarria *ponpiros* adjektiboa izan dela, honek ere *Pouvreau* duela lekuko bakarra. Haranederrek –eta berak baino ez–, ostera, *ponpatsu* eta *ponpiketsu* adjektiboak dakartza haren lekuan:

Sales	Pouvreau	Haraneder
<i>O Dieu, dit-il, combien doit estre belle la Hierusalem celeste, puisqu'ici bas on voit si pompeuse Rome la terrestre!</i>	<i>ô laincoa, cioen, cein eder behar den içan ceruco (131) Hierusalema, hemen beherean lurreco Erroma hain pompirosa denaz guerostic!</i>	<i>ô Jaungoicoa! cein ederra behar da içan Jerusalem cerucoa, eta hango gorthea; hunen ederra eta pompatsua (134) denaz gueroz Roma lurrecoa eta hemengo gorthea:</i>
Pour moy, je voudrais que mon devot et ma devote fussent tous-jours les mieux habillés de la troupee, mais les moins pompeux et affaités	Nitaz beçambatean, nahi nuque ene devota, dela guiçon, dela emacume, bethi bere compainiaco guciac baino hobequi vestitua licen, ordea pompiresun eta affaitadura gutiagorequin	Nic behintzàt nahi nuque, ni siñhetsi gogo-ninduquen devota, alà den guiçona, alà den emastequia, bethi licen, bere companiacoetaric, hobequienic vestitua ordean gutienic pompiketsua eta affaitatua

Haranaderrek ez du berretsi *Pouvreau*ren *ponpiresun* hautaketa eta horren ordez beste aukera batzuk hobetsi ditu, haien artean *berregintza*, neologismoa berau ere. Hitza *Pouvreau*ren hiztegi manuskriotoen artean ere ageri da, baina itzulpenik gabe, OEHren arabera. Dena den, Larramendik ere jaso du berean, *esplendor* gaztelaniazkoaren sarrerapean eta hitz berorren ordaintzat, eta litekeena da horixe izatea Haranederren iturria, nahiz eta *berregin* erabilia zen lapurtera klasikoan, *Pouvreau*ren *Filotean* bertan ere, eta Oihenartek ere bildua zuen “Neurtitz hautako hitz bekanen adigarria” bilduman (Oihenart, 2003: 523).

Ponpiresun horren parekoa *handiresun* ere bada. *Handiresun* eta *handitasun*, biak darabiltza *Pouvreauk*, baina ez Haranederrek, bigarren aukera soilik eskaintzen baitu itzultzaile honek. *Handitasun* eta *handiresun* hitzen arteko banaketari aditzea emankorra izan liteke. Ohikoago den *handitasun* hitza *grandeur* orokorrean itzultzeko erabili da:

Sales	Pouvreau	Haraneder
ma memoire se remplira tous les jours de ma vie, de la grandeur de votre debonnaireté, si doucement exercée en mon endroit;	Vici naicen egun gucien betheco dut neure memoria hain eztiqúi ene aldera eracusi duçun emetasunaren handitasunaz ,	Bicico naicen egun guciez ene memoria bethetçen harico da çuc ene alderat erabilli içan dituçun ezitassunen handitassunaz :
elles [les cometes] ne sont pas neanmoins comparables ni en grandeur ni en qualité aux estoiles	badaric ere [cometac] eztira (176) içarrequin comparatcecoac, ez handitasunaz , ez eta ahalaz edo vertutez	eguiazqui [cometac] comparatcecoac ere ez diren arren içarrequien, ez handitassunean , ez qualitatean, edo vertutean
je dis grand roy en toute sorte de grandeur	Erregue handia diot, handitasun suerte gucietan	handitassun suerte gucietan; handienetarie cenac, hortacotçat çuen lehia kharxua
Mettés vous devant sa Divine Majesté, connoissés en sa presence la grandeur de votre misere	larçaitte laincoaren maiestatearen aitcinean, haren presencian eçagut eçaçu çure miseriaren handitasuna	jarçaitte haren Majestate Divinoaren aintcinean, eçagutçatçu haren presencian çure miseriaren eta onbeharren handitassuna ,

Adiera berezituagoa du *handiresun* aukerak, itxura guztien arabera, Jainkoak emandako handitasuna soilik adieraztera mugatzen baita:

Sales	Pouvreau	Haraneder
<i>O Dieu, dit-il, combien doit estre belle la Hierusalem celeste, puisqu'ici bas on voit si pompeuse Rome la terrestre! Et si en ce monde tant de splendeur est concedee aux amateurs de la vanité, quelle gloire doit estre reservee en l'autre monde aux contemplateurs de la verité!</i>	<i>ô laincoa, cioen, cein eder behar den içan ceruco (131)</i> <i>Hierusalema, hemen beherean lurreco Erroma hain pompirosa denaz guerostic! Eta mundu hunetan hambat handiresun emaiten baçaye vanaloriasaley, cer loria preparatu behar çaye bertcean, iarri direney eguia hutsaren miratcen?</i>	<i>ô Jaungoicoa! cein ederra behar da içan Jerusalem cerucoa, eta hango gorthea; hunen ederra eta pompatsua (134) denaz gueroz Roma lurrecoa eta hemengo gorthea: eta hambat ontassun eta handitassun uzten çajenaz gueroz mundu huntan vanitatearen ondoan dabilçanei; cer gloria ez çaje preparatu behar bercean eguiaz maitatcen dutenei.</i>
en laquelle si nous conversons humblement et fidellement, Dieu nous eslevera a des grandeurs bien grandes.	hartan humilqui eta fidelqui bagabiltça, laincoac goitituco gaitu handiresun guciz handietara	ceiñetan, baldin humilqui eta lejalqui bagabiltça, altchatuco baitcaitu Jaincoac, gure esparança guciac ichitcen dituzten handitassunetara .
et ceux ci, faisant leur election pour la gloire, dressent leurs pieges et tendent leurs toyles en des lieux specieux, relevés , rares et illustres.	Horiec bere hautua loria gatic eguinez, bere arteac eguiten eta (288) sareac bedatcen tuste itchura ederreco, handiresuneco , aippameneco eta nihor guti treve den lecuetan.	eta hauc bere hautua, eguñez gloria gatic, bere sareac hedatcen dituzte lekhu ederretan, eta ohore eguin dioçoqueten ihiciric atceman uste dutenean

Pouvreau ez zen lehena izan hitz bakoitzari adiera bana eransten, baina berak proposaturiko adiera banaketa horretan Materre eta Axularren erabileratik aldenduko litzateke:

La variante *handirasun* (por disimilación debida a la proximidad entre dos oclusivas apicales, d-t; v. tbn. *handidasun*) se documenta en Leizarraga, Materre, Axular y en los Refranes de Isasti, y *handiresun* en Pouvreau, coexistiendo en todos estos autores con *handitasun*; en Materre y Axular parece que *handirasun* se especializa como 'vanagloria' (OEH: "handitasun").

Lexema berari atziki beraren aldaki bana gehituz sorturiko hitz pare bakarra ez da ikusi berri dugun *handitasun / handiresun* bikoteak osatzen duena. Horren kidea dugu *ontasun / onhasun* bikotea ere. Hona hemen *ontasun* hitzaren agerpenak:

Sales	Pouvreau	Haraneder
Dieu vous a fait esclore de ce rien, pour vous rendre ce que vous estes, sans qu'il eust besoin de vous, ains par sa seule bonté .	laincoac atheraçaitu ezdeuz hartaric çure eguitea gatic çaren beçalacoa, çure beharric etçuelaric, bainan bere ontasun hutsaz.	Jaincoac athera çaitu ez deus hartaric, çu eguiteco orai çarena: çure beharric ezçuelaric, aiticic creatu çaitu bere oniçate edo misericordia choillaz
Qu'est ce que je feray jamais pour dignement benir vostre saint Nom et remercier vostre immense bonté ?	Cer eguinen dut secular çure içen sainduaren behar leguez benedicatceco, eta çure neurrigabeco ontasunari esquerren emateco?	Cer eguiñen dut çure icen saindua benedicatceco behar beçala eta çure ontasun neurri gabecoari esquerrac emateco?
n'honorant non plus vostre bonté que si vous n'eussiez pas esté mon Createur.	gueyago ohoratcen énuela çuré ontasuna , ene Creatçaillea içan espacien baino.	ene Creatçaillea içan ez baciñe baiño guehiago ez dut preçatu eta ohoratu çure ungui eguiñac eta çure ontassuna .
sa bonté m'a tirée de rien, et sa misericorde m'a créée.	haren ontasunac athera nau (35) ezdeuzetic; eta haren misericordiac creatu nau.	Haren unguienec eta ontassunac athera nau ez deussetaric, eta haren misericordiac creatu eta mundurat eman nau.

Pouvreak eta Haranederrek, biek ala biek, darabilte *ontasun* hitza, eta biek adiera berarekin, ‘bonté’, aipuetan ageri denez. Pouvreauren itzulpenean, ostera, *onhasun* ere sarri azaltzen da, pluralean ia beti, *ontasun* materialak adierazteko (‘biens’, ‘richesses’, ‘commodités’):

Sales	Pouvreau	Haraneder
<i>rien n’y est pur : le regret est tous-jours collé a l’allegresse, la viduité au Mariage, le soin a la fertilité, l’ignominie a la gloire, la despense aux honneurs, le degoust aux delices et la maladie a la santé</i>	<i>ezta deus garbiric, bethi allegriançari datcheco damua, ezcontçari alharguntça, hainitz onhasun eta haur içanari artha, loriari laidoa, ohorey gastua, gauça goçoey nardamendua, eta ossasunari eritasuna.</i>	<i>deus ere ez da chahuric; alegriancari bethi datcheico damua, ezconçari alhargunça, franquiari ardura eta grina, loriari laidoa; ohorei gastua, atseguñei desgostua, eta ossassunari eritassuna.</i>
si vous estes portee a la joye, aux desirs d’acquerir des biens	ea onhasunic biltceco guthiciac ukितcen çaituen	ontassun guehiagoren irrixa duçun eta lehia,
Vostre coeur, chere Philothée, doit estre comme cela, ouvert seulement au Ciel, et impenetrable aux richesses et choses caduques: si vous en aves, tenes vostre coeur exempt de leurs affections	Çure bihotza, Philothea, halacoa behar da içan cerura choilqui idequia aberatstasunençat eta gauça erorcorrentçat ossoqui tapatua. Baldin baduçu munduco onhasunic , idukacu bihotza hetaraco affectionetaric libratuic:	Çure bihotçac-ere, Philothea maitea, horlache behar du içan cerura cholqui idequia, aberaxtassunençat, eta gauça iragancorençat bethi tapatua. Baldin-baduçu munduan ontassunic , atchicaçu çure bihotça hetaraco lerragunetic eta affectionetic aldartua
je veux bien que vous ayes soin d’accroistre vos moyens et facultés, pourveu que ce soit non seulement justement, mais doucement et charitablement.	nahi dut artha iduqui deçaçun çure onhasunen emendatceaz eta berretceaz, ordea ez choilqui çucenqui, bainan oraino emequi, baratche, eta charitateac aguintcen duen beçala.	nahi dut içan deçaçun artha çure mojenac eta ontassunac handitceco eta berretceco; ordean ez choilqui justutassunequin, baiñan oraiño emequi, eta caritatearequin eguitecotan.

Sales	Pouvreau	Haraneder
Si vous affectionnes fort les biens que vous avez,	Haguitz affeccionatcen baçare ditutçun onhasunetara ,	Baldiñ ditutçun ontassunac haiñitz baditutçu maite,
comme l'amour de Dieu est doux, paisible et tranquille, aussi le soin qui en procede, quoy que ce soit pour les biens du monde, est amiable, doux et gracieux.	nola laincoa ganaco amudioa, emea, baquetia, eta (270) pausatua baita, hala haren ganic sortcen den artha, munduco onhasunez hartcen bada ere, amolsua, maitagarria, ezitia, emea eta arraya da.	Jaincoaganaco amodioa, ezitia, baquetiarra, eta sossegatua den beçala: orobat harenganic heldu den artha, munduco gaucençat bada-ere maitagarria, ezitia, eta descantsuz bethea da.
Considerez les graces corporelles que Dieu vous a données: quel corps, quelles commodités de l'entretenir, quelle santé	Considera etçatçu laincoac emaiten derausquiçun gorputceco graciac, (40) nolaco gorputça, nolaco onhasunac haren mantenatceco, nolaco ossasuna,	Considera etçatçu gorphutçaren partetic Jaincoac eman içan darozquitçun abantaillac: nolaco comoditateac eman darozquitçun gorphutz horren mantenatceco: nolaco ossasuna:

Pouvrearen *ontasun* / *onhasun* bereizketaren berri Duvoisek jaso zuen, *ontasun* / *onthasun* hitzen adierez ziharduela: “Ce mot [*ontasun*] est évidemment le même que *onthasun*, ‘bien, propriété’. Mais, en Labourd, on en fait la distinction par l’aspiration que l’usage a adopté pour le dernier” (OEH: “ontasun”). Dena den, gure itultzaleen artean Pouvreauk soilik ageri du bereizketa, Haranederrek denetarako *ontasun* erabiltzen duen bitartean. *Ontasun* hitzaren lekuko ugari dago Pouvreauren aurretik ere, baina ez dago horren argi Duvoisenek jasoriko forma eta adiera bereizketa Pouvreau baino lehen ere egin ohi ote zen.

Hortaz, Pouvreauren itzulpenean atzizkiz osaturiko hitz beraren forma ezberdinei adiera bereziak atxikitzeke joera ageri da. Eta hala ere, joera horrek badu salbuespenik, *maitasun* / *maitarasun* hitzetan esate baterako. Hitz bikote honen erabilerari dagokionez ez da ageri bien arteko oposaketarik adieraren aldetik. Hona hemen *maitasun* hitzaren agerpenak:

Sales	Pouvreau	Haraneder
O mes chers amis, mes cheres alliances, permettes-moy que je ne vous affectionne plus que par une amitié sainte, laquelle puisse durer eternellement	O ene adisquide eta ahaide maitea utsnaçaque maita etçaitçatedan seculacotz (50) iraun deçaqueyeyen maitasun saindu batez baicen	O ene adisquide eta ahaide maiteac eta onhexiac! permeti dieçadaçue, etçaitçatedan guehiago maita eternitetean iraun ahal deçaquen, amodio, eta onerizte saindu batez baicen
ils s'entr'ayment, mais d'un amour sacré et tres pur	maitatcen dute elkar, bainan maitasun sacratuaz eta garbienaz	elkhar maite dute, ordean amodio Saindu eta guciz garbi batez
faites mille sortes de divers mouvemens de vostre coeur pour vous donner de l'amour de Dieu, et vous exciter a une passionnee et tendre dilection de ce Divin Espoux.	milla oldarçarre eguitçu bihotcez laincoaren amudioaren pitzteco çure baitan, eta çure etçartceco laincosco Espos haren maitasun passionatu eta samur batetara.	milla movimendu eguitcitçu bihotcez (130) han pitchteco Jaincoaren amodioa, eta hura lehia arazteco bere Espos Divinoaren amodio khartsu eta samur batetara.

Hitz horri dagozkion ‘amour’, ‘dilection’ adiera horiexek edo oso hurbilekoak dira *maitarasun* kideari ere dagozkionak, ondorengo agerpenen arabera:

Sales	Pouvreau	Haraneder
les autres vilains, perdus, pourris en leurs brutales affections .	bertceac liçunduric, galduric, ustelduric bere urdesco maitarasunetan .	berceac berriz bere axeguiñ brutalen ondorez mengoatuac eta galduac eta ustelduac:
Aymes les pauvres et la pauvreté, car par cet amour vous deviendres vrayement pauvre,	Ditutçun pobreac eta pobreacia maite, ceren maitarasun hartaz eguinen çara eguiazqui pobre,	Maitat-çatçu pobreac eta pobreacia: ecen maitatce horrec eguiñen çaitu eguiazqui pobre,
toute l'Escriture Sainte vous recommande estroitement cette subjection, laquelle neanmoins la mesme Escriture vous rend douce, non seulement voulant que vous vous y accommodiés avec amour, mais ordonnant a vos maris qu'ils l'exercent avec grande dilection , tendreté et suavité	Esquritura Saindu guciac azpicotasun hura hersiqui gomendatcen derautçue, cein azpicotasun halaric ere Esquriturac berac eguiten beiterautçue ezti; icusiric ez choilqui nahi duela hartan iarçaitesten amoriorequin, bainan oraino ordenatcen derauela çuen senharrey valia ditecila çuen gainean emaiten derauen bothereaz maitarasun , bihotzberatasun eta mansotasun handi batequin.	Escritura Sainduac-ere mais-asqui gomendatzen-darotzue, eta haguits hertxiqui aspilotassun hori, haguits estitzen-darotzuelaric-badà, es-choillqui çuei irakatsis, hortara behar-duçuela yarri gogo-ones eta amodios: baiñan oraiño çuen senharrei manatus, behintzat amodio handirequin, samurtassunequiñ (401) eta emetassunequin balia daitecela çuen-gaiñean ematen-daroen naussitassunas.

Adieren gainera, aipagarria da hemen Haranederrek ez duela behin ere erabili *maitasun / maitarasun* bikotea, eta behin soilik horien hurbileko *maitatze*, gehienetan *amodio* hobesten duela. Pouvreauri ere ez zaizkio arrotz *amudio* eta *amorio*, izan ere sarrien erabiltzen dituen hitzak dira, baina *-ta(ra)sun* atzizkidunekin batera. Historia konplexua izan duen hitza den arren, badirudi Pouvreauk haren sorreran eta hedapenean zerikusik izan duela, lehen erabiltzaileen artean ageri baita:

Poco documentado en la tradición septentrional: se encuentra en Pouvreau y en los suletinos Belapeyre, Maister y Archu, [...]. Al Sur, antes del s. XIX, sólo lo emplean Mendiburu (en la forma *maitatasun*, sg. Dv) y Larramendi (*Gram* 392, como glosa). [...] La forma *maitasun* no se documenta hasta mediados del s. XIX; a partir de principios del XX su uso crece, y en la segunda mitad de éste parece ser más frecuente que *maitetasun*. Pouvreau usa *maitarasun*, Archu (*Fab* 197) y Mirande *mait(h)arzun*, y Belapeyre, Maister y Mendigacha (147) *maitetarzun* (OEH: “maitasun”).

Ibilbidea alderantziz eginez gero, jatorrizko bertsiotik itzulpenetara alegia, orduan ere emaitza aipagarriak lortuko ditugu eratorbidez sorturiko hitzen erabilera dela eta. Honetarako hitz bi aukeratu dira: *ravisement* (jatorrian bertan *extase* hitzarekin batera sarritan) eta *bienséance*. Horietako lehenaz honako emaitzak lortu dira:

Sales	Pouvreau	Haraneder
ce sont les extases ou ravissemens ,	hec dira extasac edo eramaitçac	Hec dire extassiac
Quand j’ay veu en la vie de Sainte Catherine de Sienne tant de ravissemens et d’eslevations d’esprit,	Santa Catalina Siencoaren vicitcean horrembat espirituco eramaitça [...] icusi ditudanean,	(383) Santa Catharina Siencoaren bicitzean, ikhussi-ondoan spirituco contemplacione eta gorapen
Et n’estime pas moins la petite et basse meditation qu’elle faisoit parmi les offices vilz et abjectz, que les extases et ravissemens qu’elle eut si souvent	Eztut ere gutiago estimatcen officio ezdeus eta humilgarri hetan eguiten çuen meditacione chipia eta behera, hambatetan içan cituen estasac eta eramaitçac baino,	eta hambat caisquit-erè precatzeoac, officio eta lan appal horien artean eguiten-ohi-cituen, meditacione simplettoac, nolà extasia eta bereganic-ilkhitze , haiñ-hussu, cituenac

Pouvreauk sistematikoki *eramaitza* erabili du ‘ravisement’ adierarako eta bera da erabilera horren lekuko bakarra (OEH: “1 eramaitza”), nahiz eta ezohikoa den euskaraz *-tza* atzizkia aditz izenari edo aditzaren edozein formari lotzea, *consuetudo* edo usadioaren kontrako jarduera beraz. Haranederrek, ostera, uko egin dio hitz bat eta beraren bidezko ordezkatzeari, baina honen proposamenek ez lukete talkarik egingu usadioarekin.

Bigarren adibidean jokabide antzekoagoa erakutsi dute itzultzaile biek. Hona hemen *bienséance* frantsesezkoari dagozkion ordainak:

Sales	Pouvreau	Haraneder
Et quant a David, s'il dansa et sauta un peu plus que l'ordinaire bienseance ne requeroit devant l'Arche de l'alliance, ce n'estoit pas qu'il voulust faire le fol;	Davitez beçambatean, legue çaharreco Arcaren airtcinean dansan eta iausica hari içan cen, appur bat gueyago ohico ederquitasunac aguintcen çuen baino: etçuen hargatic bere burua erho eguin nahi	Erregue David Alienciaco Arcaren airtcinean dantçan ere jaucica hari içan cenean, ohico onguiquiçunac aguintcen çuen baiño aphur bat guehicheago; ez çabillan erroarena eguiñ nahiz
CHAPITRE XXV. De la bien-seance des habitz	HOGOY ETA BORTZGARREN CAPITULUA. <i>Tresnen ederquitasunaz.</i>	XXV CAPITULUA. <i>Tresnen onguiquiçunaz, edo ederquitasunaz.</i>
Or, la bien-seance des habitz et autres ornementz depend de la matiere, de la forme et de la netteté	Bada aldagarrien eta bertce tresnes ederquitasuna heldu da estofatic, molderic eta chahutasunetic.	ordean gogo garbirequiñ eta sobraniaric gabe vestitzen direlaric-vestimenduen eta berce edergarrien onguiquiçuna badà heldu ohi da estofatic, moldetic eta chautassunetic.
Quant a la matiere et a la forme des habitz, la bien-seance se considere par plusieurs circonstances du tems, de l'aage, des qualités, des compaignies, des occasions.	Arropen gayaz eta moldeaz beçambat, hequin ederquitasuna hainitz aldetaric consideratcen da, demborari, adinari, graduari, compainiey, ocasioney behaturic.	Tresnen gayas, estofas, eta moldeaz denas beçambatean, hauquiñ onguiquiçuna eciñ erreguela daiteque haiñitz helcariei edo circianciei behaturic baicen:
Pour moy, je voudrois que mon devot et ma devote fussent tous-jours les mieux habillés de la troupe, mais les moins pompeux et affaités, et comme il est dit au proverbe, <i>qu'ils fussent parés de grace, bien-seance et dignité.</i>	Nitaz beçambatean, nahi nuque ene devota, dela guiçon, dela emacume, bethi bere compainiaco guciac baino hobequi vestitua licen, ordea pompiresun eta affaitadura gutiagorequin: eta errefauean errana den beçala, aparelatua licen graciáz, ederquitasunaz , eta mereciez.	Nic behintzàt nahi nuque, ni siñhetsi gogo-ninduquen devota, alà den guiçona, alà den emastequia, bethi licen, bere compainiacoetaric, hobequienic vestitua ordea gutienic pompiketsua eta affaitatua; eta proverbioetan errana den beçala, licen gracia ones, onguiquitçunes , eta merecimendus berreguiñdua.
Mais en cas que les jeunes gens ne se veillent pas contenter de la bien-seance , il se faut arrester a l'advís des sages.	aina casu emanic gazteec eztutela nahico ederquitasunaz contentatu, egon behar da çuhurren erranetan.	eta baldiñ gastei es baçaye asqui ongui eta behar beçambat dena , çauisico çu çuhurraren avisuari

Oraingoan itzultzaile biek jo dute neologismoen bitarteko ordainetara ‘bien-séance’ edo ‘decoro’ adierarako. *Pouvreau* da *ederkitasun* hitzaren lehen leku-koa, eta ia bakarra hiztegietatik kanpo (OEH: “ederkitasun”). Haranederrek *ongikizun* sarriago erabili du, baina berak baino ez hiztegietatik kanpo (OEH: “ongikizun”). Eta hiztegi iturria Larramendirena izango zukeen (ikus Larramendi 1745: “acomodar [Lo que puede así acomodarse]”). *Bienseance* itzultzeko orduan itzultzaile biek *ratioaren* araberako baliabide analogikoetara jo dute *ongi* eta *ederki* adberbioei *-tasun* eta *-kizun* atzizkiak erantsiz hurrenez hurren, eta behar bada frantsesezkoaren beraren eredura, kalko semantiko gisa, baina euskaraz lorturiko emaitzek ez dute ia harrerarik izan usadioan.

2.1.2. Konposizioz sorturiko hitzak Filotea euskaratuetan: zenbait adibide

Konposizioz sorturiko hitzen artean adibide bi azpimarratu ditugu: *baserri* eta *alargunaizun*. Auzitan jarri liteke hitzok neologismo dinenentz, batez ere lehena, baina ez analogikoki sortu izana. Lehenak agerpen bana baino ez du itzultzaile bakoitzarengan, eta pasarte ezberdinen ordainetan gainera. Hona hemen *baserri* hitzaren agerpenak:

Sales	Pouvreau	Haraneder
c'est pourquoy on les appelle pedans.	hargatic bazherrico irakastunlariac deitcen dire	horren gatic deitcen ere dituzte pedantac edo bassa-naussiac
on se treuve aux champs dans quelque bicoque ou tout manque: on n'a lict, ni chambre, ni table, ni service.	Bertce aldi batez guertatcen gara herriz campoan cembait herri chumetan, non gauça guciac escasten baitira, non ezpaita oheric, guelaric, mahainic, servitçuric, errecaituric:	Nihor, herriz campoan dabillala, gauac açartuco du basherri batean, ceiñetan ez baitu aurkhituco ez oheric, ez jatecoric, ez berce errecaituric.

Orotariko Euskal Hiztegia-ren arabera, tradiziozko hitza da baina erabilera urrikoa Euskal Herri kontinentalean: “*Tr.* Aunque se documenta por primera vez en Pouvreau y Etcheberri de Sara, es poco usado por autores septentrionales. En el *msOñ* [Oñatiko eskuizkribua, XVIII. mendekoa] aparece la forma *basaerri*.” (OEH: “baserri”). Dena den, berriro ere Pouvreau litzateke hitzaren lekukorik zaharrena. Hortaz litekeena da XVII. mendean oraindik hitz berria izatea.

Aurrekoak ez bezala, *alargunaizun* hitzak Pouvreau du lekuko bakarra:

Sales	Pouvreau	Haraneder
La vefve donq qui vit en ces folles delices, vivante est morte, et n'est a proprement parler qu'une idole de viduité.	beraz placer erguel hetan vici den alharguna, vici delaric hil da, eta ongui erraitera, ezta alhargunaizuna edo alhargun itchura baicen.	eta halà, molde hortaco alhargun-bat ez- da alharguntzaco idola bat baicen.

Hitzaren bigarren osagaia *aizun* adjektiboa da, *aitaizun*, *amaizun* eta holakotan ageri den bera, baina ‘faltsu’ adieraz, itxura guztien arabera Oihenarten *Jainkoaizun* haren irudira Pouvreauk asmatua. Oihenartek hitza sortu zuen ‘idole’ adieraz bere neurtzetan eta haien ondorengo hiztegitxoan (Oihenart, 2003: 447 eta 525). Goragoko *alargunaizun* hura ez ezik, hemengo *Jainkoaizun* hau ere jaso zuen Pouvreauk *Filotearen* itzulpenean, Oihenartek emandako adiera beretsuan jaso ere:

Sales	Pouvreau	Haraneder
Il faut estre jaloux, mais non pas idolates de nostre renommee	lelozcor iarri behar gare gure aippamenaz, bainan hartaz eztugu laincoaizunic eguin behar;	Ederrexi behar dugu gure omen ona; ez ordean Jaincoexi :

Hortaz, autoritatearen irizpideari ekitean Oihenart aipatu beharrekoa izango da Pouvreauren autoritateen artean. *Jainkoaizun* honi nolabaiteko harrerarik egin bazaio ere idazleen artean (ikus OEH: “jainkoaizun”), ez dirudi arrakasta bera izan duenik *alargunaizun* hitzak, behar bada usadioa oztopo izan duelako. Erabiliagoa izan da familia bereko *izaizun*, hau ere Oihernarten bitartez Pouvreauren hiztegietara igaroa (ikus OEH: “izaizun”) eta Saleskoaren itzulpenean itzultzaile honek txertatua:

Sales	Pouvreau	Haraneder
Ouy, car alors les playsirs, les vanités, les joyes mondaines, les affections vaynes nous apparoistront comme des fantosmes et nuages.	Segur, ceren orduan munduco placerac, vanaloriac, allegriançac idurituco çaisquitçu ingumac, itchurac eta içaiçunac beçala.	orduan mundoco atseguiniac, eta boscaroiac, ohoreac, vanitateac, eta adisquidetassun vanoac idurituco çaiçquigu ametx eta fantasma batçu.

2.2. Antzinatasuna (*vetustas*)

Antzinatasuna ere garbitasuna arautzen duten irizpideen artean dago, tentuz erabili beharreko irizpidea bada ere. Antzinatetik harturiko hitzek nolabaiteko maiestatea gehitzen diote diskurtsoari, bai eta gozamina sortzeko aukera ere, antzinako gauzei aitortzen zaien autoritatea dutelako. Dena den, antzinate urru-neko hitzak baino hurbilekoak dira hobetsi beharrekoak (Kintiliano, 1.6.39-41; Lausberg § 467).

Ez dirudi gure itzultzaileek hitz zaharkituak bilatu eta erabiltzeko ahalegin berezirik egin dutenik. Hitz zaharrek, orainean aldi bateko erabilera galdu dutenek, usadioaren irizpidearekin talka egin dezakete, bai eta *perspicuitas* edo ulergarritasunaren bertute elokutiboarekin ere. Hortaz, iluntasun iturri izan daitezkeen heinean, diskurtsoaren antzinatasun kutsuarekiko kezka berezirik ez dute erakusten *Filotea* euskaldunek.

Axularren *erremusina*, esate baterako, Pouvreaux eta Haranederrek *aumoina*, *amoina* egingo dute hurrenez hurren. Litekeena da ordurako *erremusina* zaharkitzen edo ezohikoago bilakatzen hasia izatea, Salaberrik 1857ko *Vocabulaire des mots basques bas-navarrais, traduits en langue française* hiztegian dioenez: “Les Basques d’aujourd’hui [...] disent *amoina* au lieu d’*erremusina*, ou bien *limosna*, qui en est synonyme”, nahiz eta Sarako Etxeberrik oraindik XVIII. mendean *erremusina* erabiltzen duen (ikus OEH: “erremusina”). Adibide honek aukera berrien aldeko joera erakutsiko luke gure itzultzaile biengan.

Neologismoen sorreran Pouvreau Oihenarten antzera jokatzan ari bazen ere, antzinatasunaz den bezainbatean ez dirudi bat egiten dutenik. Haranederrek, gainera, XVIII. menderako usadiotik kanpo gelditzen ari dena zuzendu dio Pouvreauren bertsioari. Hala azal daiteke azken honen itzulpeneko *antze* eta *sori* hitzak Haranederrenean murriztu edo desagertu izana. Hona hemen lehenari dagozkion agerpenak:

Sales	Pouvreau	Haraneder
il n'y a point aussi de naturel si revesche qui, par la grace de Dieu premierement, puis par l'industrie et diligence, ne puisse estre dompté et surmonté.	Ezta hain naturaleça onescoric, non ecin gaixta dadin ohitça gaixtoez, ezta ere hain olhagaitsic, (88) non laincoaren graciaz lehenic, guero antcez eta arthaz ecin hez eta garay dadin.	orobat ez da naturaleça hain bihurric, ceña, Jaincoaren graciaz lehenic, guero ancez eta astia hartuz ez baitaiteque ičan hecia eta molde onera ekharria.
CHAPITRE II. <i>Briefve methode pour la meditacion et premierement de la presence de dieu. Premier point de la preparation.</i>	BIGARREN CAPITULUA. <i>Antce laburra meditacionearen eguiteco, eta lehenic laincoaren presenciaz, cein baita preparacionearen lehen puntua.</i>	II CAPITULUA. <i>Methoda edo molde laburra meditacionea eguiteco.</i>
C'est pourquoy je vous presente une simple et briefve methode pour cela,	hargatic presentatcen derautçut antce labor eta erras bat haren eguiteco,	Horren gatic bada (98) ematen darotçut beguien ainciñera haren eguiteco methoda edo molde errech, eta labor bat;
Il faut donq par tous moyens s'essayer de les pratiquer, et en chercher les occasions petites ou grandes:	behar da beraz antce guciez enseyatu hequin obratcera, eta hala eguiteco ocasioneac, direla chipi, direla handi behar dira bihurtu.	Hargatic beraz antce guciez behar duçu lehiatu hec obretan ematera, eta billatu (112) hortacotçat occasione suerte guciac, hala chumeac nola handiac.
alhors, Philothée, il luy faut lascher la bride, sans vouloir suivre la methode que je vous ay donnee ;	Orduan, Philothea, utzaçu largo ioaitera, nic eman antceari lotu gabe.	Halaco ordutan, Philotea, uts (114) çaçu dohan bere abiaduran, nic emanicaco methoda huni jarraiqui gabe:

Sales	Pouvreau	Haraneder
mais un chacun se doit particulierement addonner a celles qui sont requises au genre de vie auquel il est appellé.	bainan batbedera particularqui iarrai qui behar çaieste hartu duen vicitceco antceari beha dagoscan vertutey.	baiñan bat bedera lothu behar çaje beregainqui hartu duquen bicitceco moldearentçat beharren denei, eta premiatuenei.
aussi, bien souvent ne sont-ce pas des graces qui puissent estre acquises par le travail et industrie,	hala ere hainizetan eztira graciac nihoaren travailluz eta atcez ardiets ditesqueyenac,	Berenaz ere ez dire horiec gracia batçu travailluz eta antcez ardiez ahal daitezqueyenac;
si nous considerons ce que nous avons fait quand Dieu n'a pas esté avec nous, nous connoissons bien que ce que nous faisons quand il est avec nous n'est pas de nostre façon ni de nostre creu ;	Miratcen badugu cer eguin dugun, laincoa gurequin etcenean, ongui eçagutuco dugu eguiten dugun gucia, hura gurequin denean, eztela heldu gure antcetic edo burutic.	eçagutuco bide dugu Jaincoa gurequiñ dugunean eguiten duguna, ez dela gure antcetic:
et les autres refusent d'employer leur talent au service de Dieu et du prochain	bertceec finean eztute bere (209) antcea eta iaquina emlegatu nahi laincoaren eta lagunaren servitçuco;	berce batçuec berriz herabe dire bere dohaiñac eta talenduac emlegatcera Jaincoaren cerbitçuan, eta lagun-proximoarenean,
Que s'il en falloit choisir, les plus grandes sont les meilleures ; et celles la sont estimees les plus grandes qui sont plus contraires a nos inclinations, pourveu qu'elles soyent conformes a nostre vacation ;	Guc beheramenduric hautatu behar baguendu, handienac dire hoberenac, eta handienac estimatcen dire gure gogoaren contra iarriago direnac; baldin ordea gure vicitceco antcearen araveracoac badire:	Hautua gure baitan balago, handienac dire hoberenac: eta handientçat atchiqui behar ditugu, gure nahiei bortcha guehienic eguiten daroztenac; baldin berañat gure vocationeari eta estatuari daronsotenac badire.
mais parce qu'outre celle-la il y a en iceluy la communication de la vie, de l'industrie, des biens, des affections et d'une indissoluble fidelité,	baina ceren ezconduac elkarganatce hartaz lekora, elkarrequin (284) vici baitira, elkarri emaiten diotela parte bere antcetan, ontasunetan eta affectionetan,	bainan nola hortaz bertce alde perçuna ezconduen artean baita bicitzecco eta ontaçunezco parçunerco bat, elkar maitatecco eta laguntceco,

Sales	Pouvreau	Haraneder
Pour moy, Philothée, je n'ay jamais peu approuver la methode de ceux qui pour reformer l'homme commencent par l'exterieur, par les contenance, par les habitz, par les cheveux.	Nitaz beçambat, Philothea, egundaino ecin ederetsi dut guiçonaren hoberatcea gatic, campoco gaucetaric, erremanguetaric, tresnetaric, illetaric, erremanguetaric, tresnetaric, illetaric, chirloetaric hasten direnen antcea eta manera.	nic behintzat, Philotea, eciñ-ederexi-dut egundaino guiçona hobecaratzeco campoco gaucetaric, hala nolà, yestuetaric, tresnetaric, illetaric hasten direnen moldea eta methoda.
Rappelés a soy le mesdisant par quelque douce maniere;	Erakurçu gaizqui erraillea bere gana cembait antce mansoz:	Erakharraçu gaisqui erraillea berebaitara, cembeit antze eta manera estis;
Les jeux esquelz le gain sert de prix et recompense a l'habilité et industrie du cors ou de l'esprit,	locoac, ceinetan iravasia baita gorputzeco edo espirituco fetchotasunaren eta antcearen saria eta golardo,	Yoco batzu, ceiñetan irabacia heldu baita, gorpputzeco edo spiritu antzearen eta fetchotassunaren saria eta errecompensa beçala;
A cette consideration, Salomon en ses Proverbes fait dependre le bonheur de toute la mayson, du soin et industrie de cette femme forte qu'il descrit.	Consideracione hunen gatic Salomonec dio bere proverbioetan, etchecho çori on gucia datchecola famatcen duen emazte sendo eta bortitz haren arthari eta antceari.	Halabèr Salomonec-erè bere Proverbioetaco liburuan (408) arraçoïn hortas, iratchequitzen-dio etche-guciaren coriona, aippatzen-duen emaste sendo eta balentos haren arthari eta conduita çuhurrari.
La vefve ayant fait essay de la façon avec laquelle les femmes peuvent plaire aux hommes, jette de plus dangereuses amorces dedans leurs espritz.	Alhargunac enseyatu duenean emazteec ohi duten guiçonon beguietan eder içaiteco antcea, beitha eta pitzura perillosagoac aurtikitcentu hequin bihotzetera:	Nolà alhargunec ikhassia-baitute bere escontzaco demboran, guiçonon beguietan eder aguertzeco (421) moldea eta antzea, hequien appaintzac, tentacione perillosagoac arthiquitzen-ditu guiçonon bihotzetara;

Sales	Pouvreau	Haraneder
Le vefve laquelle a des enfans qui ont besoin de son adresse et conduite,	Umeac dituen alhargunac haren antcearen eta guidaritasunaren beharrean daudenac,	Umeac dituen alhargunac, eta arè haren gobernuaren beharra duten umeac,
je luy conseille de s'en abstenir du tout, et suivre la methode de conduire ses affaires qui sera plus paisible et tranquille, quoy qu'il ne semblast pas que ce fust la plus fructueuse.	conseillu emaiten (420) diot alhargunari hetan ez bat ere sartceaz, eta bere eguitecoen errecaitatceco antce eta bide emeenari, baquezcoenari eta gueldienari iarraiquiteaz ezpaliurudi ere fruitutsuena licela.	conseillu-ematen-diot hetaz ez-baterè sartceaz, eta bere eguitecoei hots-emateco yarraiquitceaz molderic eta bideric estienari, bakezcoenari, eta gueldienari, ez-dirurielaric-erè progotchossena-dela.
Si l'ame cherche les moyens d'estre delivree de son mal pour l'amour de Dieu, elle les cherchera avec patience, douceur, humilité et tranquillité, attendant sa delivrance plus de la bonté et providence de Dieu que de sa peyne, industrie ou diligence;	Baldin arimac bilhatcen baditu bideac bere gaizetic libratceco laincoari diaducon amorioa gatic, hec bilhatucotu pacienciarequin, mansoqui, humilqui, eta bihotz pausaturequin, esperançaturic laincoaren ontasunac eta providenciatic hura lehen libratuco duela, ecen ez berac ekar decaquen travailluac, antceac eta agudeciatic.	Baldiñ arima bere gaitzetic atheratzeco biden bilha, Jaincoaganaco amodioagatic, badabilla; passienciarequin, emetassunequiñ, humilitaterequiñ, eta sossegurequiñ (466) ibillico-da, bere librança guehiagò iduriquiric Jaiñcoaren probidencia amulsuaganic, ecen ès bere ancetic, bere diliyentassunetic, ta bere yaquiñtassunetic.
selon la methode que je vous ay donnee en la seconde Partie.	bigarren partean eman derautçudan antcearen aravera.	bigarren partean erakhuchi-dudan moldearen araverà.
et ce tous-jours avec la mesme methode, pour la preparation et les affections, de laquelle vous aves usé es meditations de la premiere Partie,	eta bethiere preparacionearen eguiteco eta affeccioneen pitzteco antcea bera daducaçula, lehen parteco meditacionetan (524) eguin duçun beçala:	delà preparacionearen eguiteco, eta delà affeccionen pichteco ance eta molde berez baliatzen-çarelaric:

Oraindik argiagoa da *sori* hitzarekin gertaturikoa, Haranederren bertsiotik guztiz desagertu baita, Pouvreaux ere noizbait erabilitako *zilegi* aukeraz ordezkata. Beranduagoko testuetan ere ageri da, Duvoisin eta Orixerenetan esate baterako (OEH: “sori”). Baina litekeena da zahar kutsua zuelako hain zuzen ere hautatu izana azken horiek. Hona hemen aukera bien agerpenak:

Sales	Pouvreau	Haraneder
1. Considerez les graces corporelles que Dieu vous a données: quel corps, quelles commodités de l'entretenir, quelle santé, quelles consolations loysibles pour iceluy, quels amis, quelles assistances.	1. Considera etçatçu laincoac emaiten derausquiçun gorputceco graciac, (40) nolaco gorputça, nolaco onhasunac haren mantenatceco, nolaco ossasuna, nolaco sori diren consolacioneac, nolaco adisquideac, nolaco helçaquitçac:	1. Considera etçatçu gorphutçaren partetic Jaincoac eman içan darozquitçun abantailac: nolaco comoditateac eman darozquitçun gorphutz horren mantenatceco: nolaco ossassuna: nolaco descantsuac, hartcea cilhegui çaiçquitçunac: cembat adisquide: cembar laguntça.
Je dis donq, Philothée, qu'encor qu'il soit loysible de joüer, danser, se parer, ouïr des honnestes comedies, banqueter,	Nic diot bada, Philothea, sori delaric iocotan eta dansetan haritcea, bere buruaren edertatcea, comedia garbiric ençutea, banquetatcea;	Diot bada, Philotea, cillhegui delaric jocoan eta dantçan debekhu ez denean haritcea, bere guincera, Comedia honest baten ikhustea eta ençutea, banquet bat eguitea:
Il n'est jamais permis de tirer aucun impudique plaisir de nos cors en quelque façon que ce soit, sinon en un legitime Mariage,	Ezta nihoiz sori gorputzez placer itsusiric hartcea, nola ere nahi den, behar leguezco ezcontçan baicen;	Ez da nihoiz ere cillhegui eta ez nola nahi den gure gorphutcez placer lohirc harcea, ezcontça legitimo edo leguetiar batez campoan,
retranches-vous tant qu'il vous sera possible des delectations inutiles et superflues, quoy que loysibles et permises.	aparta çaita ahal beçain urrun ezdeusetaco eta alfer diren placeretic, cilhegui çarelaric hequin hartcera, eta berez sori direlaric.	khentçatçu ahal beçain urrun sensuetaco nahicara eta placer, progotchuric eta beharic gabeco guciac; honestac eta cillhegui direnac içanic ere.

Sales	Pouvreau	Haraneder
Pour vous res-jourir en Nostre Seigneur, il faut que le sujet de vostre joye soit non seulement loysible mays honneste : ce que je dis, parce qu'il y a des choses loysibles qui pourtant ne sont pas honnestes;	Gure launa baitan alleguera çaitecintçat cerc ere emaiten baiterauçu allegueratcecoric, hura beharda ez choilqui sori, bainan eta ohorezco içan: hala diot, ceren gauça batçu sori dire, ceinac bizquitartean ezpaitire ohorezcoac;	Jauna baitan bosteco eta alegueratzeco, es da asqui boscario ematen darotzun gauça içan dadin chilhegui dena; içan behar du oraiño honesta ere eta ongui dagotzuna: badire ecen gauçac, cilhequi diren arren, honestac es direnac eta ongui es daudecenac;
Gardés-vous des duplicités, artifices et feintises ; bien qu'il ne soit pas bon de dire tous-jours toutes sortes de verités, si n'est-il jamais permis de contrevénir a la vérité.	Beguir çaitte bi ahotacotasunetic, artezietaric eta dissimulatcetaric; on eztelariç bethi eguia gucién erraitea, badaric ezta behin ere sori eguiaren contra minçatcea:	Begui-çaitte bietacotassun eta aleguia guciétatic. Ecen, on-es-den arren eguia suerte guciac eta bethi erratea, hala ere es da behinere chilhegui eguiaren contra mintzatzea.
CHAPITRE XXXI. <i>Des passetems et recreations, et premierement des loysibles et louables</i>	HOGOY ETA HAMECAGARREN CAPITULUA. <i>Passa tiempoez eta alleguera aldiez eta lehenic sori eta laudatceco direnez.</i>	XXXI CAPITULUA. <i>Divertimenduez; eta lehenic cillegui eta laudagarri direnez.</i>
ce sont recreations de soy mesme bonnes et loysibles.	berez passatiempo onac dira, eta sori da hetan haritcea:	berenès divertimendu onac dire eta cillegui-direnac:
CHAPITRE XXXIII. <i>Des balz et passetems loysibles mais dangereux</i>	HOGOY ETA HAMAHIRURGARREN CAPITULUA. <i>Sori, baina perillos diren balez eta passatiempoez.</i>	XXXIII CAPITULUA. <i>Balez, eta bertze passatiempo chilhegui bainan perilus direnez.</i>
CHAPITRE XXXIV. <i>Quand on peut jouer ou danser</i>	(375) HOGOY ETA HAMALAU GARREN CAPITULUA. <i>Noiz sori den iocoan edo dansetan haritcea</i>	XXXIV CAPITULUA. <i>Noiz den chilhegui yocotan edo dantzariç haritcea.</i>

Sales	Pouvreau	Haraneder
Pour jouër et danser loysiblement, il faut que ce soit par recreation et non par affection ;	Sori içaitecotz iocatcea eta dansatcea, den gucia eguin behar da dostailluz ez affeccionez,	Yocotan eta dantzan haritzeco, permis den maneran, errecreaciones hari-behar-da, eta-es affeccionez;
car la condescendance, comme surgen de la charité, rend les choses indifferentes bonnes, et les dangereuses, permises.	ceren nola amora charitatearen cherto baita, hare gucietara orobat diren gaucac eguitentu (376) on, eta perillosac eguitentu sori;	ecen prudencia eta complessencia kharitatearen mutillac beçala dire; eta gauça-es-on-es gachto direnac, baità on, ordean perilsu direnac cilhegui errendatzen-dituste,

2.3. Autoritatea (*auctoritas*)

Idazle onenek (*auctoritates*) darabilten hizkuntz ereduari jarraitzean datza autoritatearen irizpidea. Haiek dakartzaten hitzak erabiliz gero ez dago okerbide-rako beldurrik (Kintiliano, 1.6.42; Lausberg § 468).

Ez da erraza gure itzultzaileok aurreko idazlerik edo garaikiderik autoritatetzat jo ote zuten zehaztea. Dena den, orain arteko ikerketak zenbait aztarna aipagarri zehaztu du. Pouvreaux autoritate gisa zituenen artean Axular dago. Sarako erre-torearen aztarna eta oihartzunak beste lan askotan identifikatu ostean, Blanca Urgellek Axularren autoritea haren ondorengo zenbait idazlerengan aurkitu du:

[...] hitz askok XVII. mendetik aurrera tradizioa sortu dutela aipatu beharra dago. Hau erakusteko, har ditzakegu gorago erabili ditugun Axularren hitzak, hain zuzen berak lehendabizikoz erabili zituenak:

beheratzapen (ES 93), *desgogara* (Ch 37), *desgogarako* (Hm 222, SP *Imit* 195 (baina *desgogarazco*), Ch 233, He *Gudu* 151, Dh 204, Dv *LEd* 272); *desohoragarri* (SP *Phil* 227 > He *Phil* 229); *edergailu* (SP *Imit* 81, ES 125, Ch 15); *emendailu* (SP *Phil* 417 (emendagaillu 441), ES 89); *ethorkor* (ES 399, Dv *Lab* 2); *eztheustasan* (Ch 169; gainerakoek ez- erabili ohi dute); *hilkizun* (SP *Phil* 478); *kontrapozoin* (SP, Tt *Onsa* 34 *contrapozoa*, ib. 37 *contrepozoa*, ES 184); *manukortu* (ES 181); *minberadura* (SP *Phil* 194); *mugakide* (ES 186).

Dakusgunez, Pouvreaux, Xurio eta Etxeberri Sarakoa dira fidelenak; hauetarik ausarinetan batzu oraino beste hitz zenbaiten sustrai izan dira: *edergailuztatu* (ES 147), *hilkizuntasan* (SP *Imit* 63), *mugakidetasun* (ES 137) (Urgell, 1992: 242).

Aipagarria da hitz horiek guztiak harako *ratio* haren baliabide analogikoetan oinarriturik sortuak izana. Pouvreaux ez dio Axularri jarraitzen usadioko eta behar bada zaharkitzen hasitako *erremusina* bezalako hitzetan, baina bai Pouvreaux berak ere horren gogoko dituen neologismoetan.

Horixe bera esan daiteke Oihenartek Pouvrearengan zuen itzalaz. Idazle garaikideren bati Pouvreauk autoritaterik aitortu bazion Oihenarti egin zion, honek hari idatzitako gutunek erakusten dutenez (Kerejeta, 1991). Eta honi ere arrazoiaren araberako prozedura analogikoen ustiaketan erakutsitako eredugarritasunagatik –ez horrenbeste hitz zaharrak bildu eta erabiltzeko zaletasunagatik– gorago ikusi dugun bezala. Han aipaturikoen taiu berekoa da honako *jaun etsi* hau, edo *jaurestea* Oihenarten erabileran (Oihenart, 2003: 525):

Sales	Pouvreau	Haraneder
une grande troupe de mondains qui tous a teste nuë le reconnoissent et luy font hommage, les uns par un peché, les autres par un autre.	munducoen çaldo handi bat, guciac burua aguerturic, chapelac erauntsiric, hura laun etsten dutela, eta agur egiten diotela,	mundutarrezco aralde handi bat buru has guciac dagozcola agurca, hura bere jauntçat harturic , batac bekhatu batez,

Hitz beronen oihartzun izan liteke Haranederren *jainkoetsi*, nahiz eta beste testuinguru batean txertatu duen itzultzaile honek:

Sales	Pouvreau	Haraneder
Il faut estre jaloux, mays non pas idolâtres de nostre renommee	lelozcor iarri behar gare gure aipamenaz, bainan hartaz eztugu laincoaiçunic eguin behar;	Ederrexu behar dugu gure omen ona; ez ordean Jaincoexi :

Haranederren autoritateak identifikatzea zailagoa izan liteke. Azken adibide honen arabera, Oihenart horietako bat izan liteke, bai eta Axular bera ere, Urgellengandik bilduriko aipuan jaso denez. Dena den, zentzuzkoa da pentsatzea Pouvrearen bitartez jasoko zituela hitz horiek. Haranederrek kritika gupidagabea egin zion Pouvrearen itzulpenari, eta hala ere ez da gutxi hark honi zor diona, batez ere hiztegiari dagokionez. Itzultzaile bien bertsioak parez pare jartzea nahikoa da ohartzeko Pouvrearen hitzetatik zenbat ageri diren Haranederren itzulpenan ere.

Baina Pouvreauk Oihenart bezala, badirudi Haranederrek ere garaikideren bat izan zezakeela autoritatetzat, isilpean gorde arren. Gorago aipaturiko *berregintza* eta *ongikizun* hitzek Larramendiren hiztegi hirukoitzaren ezagutza salatuko lukete, inoiz kontrakorik iradoki bada ere:

Hala bada, *Escuara gaitz eta arranju gabeco batera* (Haraneder, *Gudu*, v) itzulirik zirelako saiatzan da berriz Haraneder euskaratzen bi liburu horiek [*Filotea* eta *Gudu espiritual*], eta ez du, noski, itzultzen nolanahi, euskara eder eta ongi arranjatu batean baizik, herriak darabiltzan moldetan, eta, beraz, ez dut topatu Haraneder baitan Larramendiren eraginik (Urkizu, 1992: 315).

Aipaturiko hitz pareak ez da erabateko argumentua Haranaderren larramendizaletasuna frogatzeko, baina bai joera horren aldeko azterna⁶.

2.4. Usadioa (*consuetudo*)

Usadioaren irizpideak hizkuntzaren ohiko erabilera du ardatz, baina ez herri xehearen erabilera arrunta nahi eta nahi ez, ezpada euren burua landu dutenean, *consensum eruditorum* gisa (Kintiliano, 1.6.44-45). Garbitasunerako arauaren irizpideen artean usadioa nagusi da. Beste irizpideetan soilik oinarritzea okerbiderako zio izan daiteke, baina usadioari jarraitzen dionak akatsak saihestuko ditu (Lausberg § 469).

Euskarazko idazleen artean usadioak berez zekarren ondare hitzak erabiltzea, bai eta latin eta erromantzetiko maileguak aspaldi hizkuntzan onartu eta egokituak. *Filotearen* lehen itzultzaileak ez dira horretan aurrekoetatik bereizten. Usadioak onartua zuen ere mailegu berriak erabiltzea gaiak hala eskatzen bazuen, eta ugariak dira horrelako hitzak XVI eta XVII. mendeetako lanetan.

Dena den, maileguen harrerari dagokionez, idazle guztiek ez zuten modu berean jokutzen: “mailebuei dagokienez, ikerketa faltaz ezer gutxi esan daiteke, ezpada, guztiek erabiltzen zituztelarik, neurri ezberdinetan egiten zutela, eta itxura ezberdinetan. Hegi batean, beharbada, Pouvreau genuke; bestean Leizarraga” (Urgell, 1992: 230). Izan ere, ez dira gutxi Pouvreauren bertsioko maileguak, baina agerikoa da haien erabilera mugatzeko ahalegina neologismoen bitartez ordezkaturik, gorago ikusi bezala. Eta maileguei dagokienez Haranederren jokabidea ez da oso bestelakoa.

Neologismoen ugaritasuna eta baliabide analogikoak ohiz kanpoko neurrian erabiltzea, ordea, usadioaren kontrako jarduera izan liteke. Alde horretatik Pouvreau bere garaiko idazlerik ausartenetarikoa izango genuke, ausartena ez esatearren. Haranederrek “orai Escaldunac mintzo diren molderat itçulia” duela Salesko Frantsesen lana aitortzen du, usadioa gogoan izan duela aditzera emanaz, baina hitz hautaketaz den bezainbatean, adierazpen horrek pentsaraziko ligukeen baino gogokoago ditu berak ere neologismoak.

6. Artikulu hau inprimimategirako emateko den aste berean ondorengo komunikazioa aurkeztu da Primer Congreso de Bibliografía ekitaldian (Zarautz, 2011ko apirilaren 1tik 3ra): Manuel Padilla Moyano, *La influencia de Larramendi en Vasconia Norte en el siglo XVIII*. Jakingarria litzateke komunikagileak Hiztegi Hirukoitzaren harreraz zer esan duen. Padillak berak Hazparneko XVIII. mendeko anonimoan jesuita andoaindarraren Hiztegi Hirukoitzeko zenbait hitz aurkitu du (Padilla, 2009: 186-187). Azken argitalpen horren berri *Oihenart* aldizkariaren ebaluatzaile anonimoen arteko bati zor diot.

3. ONDORIO GISA

Aztertutakoaren arabera badirudi garbitasunaren bertute elokutiboa zaintzen ahalegindu direla *Filotearen* lehen itzultzaile biak hitz hautaketaz den bezainbatean. Garbitasunaren arau nagusia usadioa izan ohi da mendebaldeko tradizio erretorikoan eta hala zen oraindik Grand Siècle aldiko Frantzia. Gure itzulpenetan ere usadioaren aztarna ukaezina da baina berebiziko indarra antzematen zaio arrazoiak zuzentzen duen prozedura analogikoari ere, hor baitu oinarri eratorbidez eta konposizioz sorturiko neologismo multzo oparoak. Ikerketa honetako tresna metodologikoen artean estatistika ez bada ere, hitz berriak ugariak eta sarri erabiliak direla agerikoa da.

Autoritateak ere, garbitasunaren bertutea arautzen duten irizpideen artekoa den heinean, badu zeresanik itzulpen biotan. Pouvreaux Oihenart izan zezakeen autoritate nagusizat, eta Sarako Eskolako artean Axularren eragina aipagarrienetakoa litzateke. Haranederrek ez du autoritatearik aitortzen baina Larramendiren hiztegiaren aztarnak bilduma hori ezagutuko zukeela adierazten dute. Filotearen itzultzaile biek hobetsiriko autoritateek, ez nolanahi, goragoko *ratio* hartan oinarrituriko neologismoen zale ditugu. Oihenart eta Larramendi bezalako idazle prestigiosuak autoritate gisa aukeratzean, gure itzultzaileek hitz berriak erabiltzeko legitimazioa aurkitu dute. Filotearen itzulpenetan autoritatearen irizpidea arrazoiarena indartzera dator *puritas* elokutiboaz den bezainbatean.

Antzinatasunaren irizpideak, azkenik, pisu gutxien izango luke garbitasunaren araberako hitz hautaketan. Dirudenez itzultzaile biek modu beretsuan jokatu dute hitz zaharren erabileraz den bezainbatean, horien ordez unean uneko usadioari dagozkionak hobetsi baitituzte. XVII. mendeko Frantzia Vaugelasek proposaturiko joera beretsua erakutsi dute gure itzultzaileek ere (Ayres-Bennett, 1987: 132; Marzys, 2009: 35). Vaugelas bera Malherberen ildo puristaren jarraitzaile izanik ere, honengandik aldendu zen beraren garairako hitzen bat zaharkitua bazen (Marzys, 2000: 419). Halatsu Haranederrek ere bere garaioak erabili ditu Pouvreauren zenbaiten ordez.

Filotearen itzulpenetan hizkuntz garbitasunarekiko kezka agerikoa da. Kezka hori hein batean unibertsala da mendebaldeko kulturetan eta euskal letretan ere aitzindari nabarmenak izan ziren Sarako Eskolako idazleen artean. Hala ere, nekez uler liteke Pouvreaux eta Haranederren jarrera XVII. eta XVIII. mendeetako Frantzia nagusitutako hizkuntz balioak gogoan izan gabe. Giro horretan hain zuzen ere garbitasunaren bertuteari maila gorena aitortu zitzaion. Bertute horren aldarrikatzaile nagusien artean Vaugelas zen hausnarketa gramatikolari zego-kionez, lehenago Malherbe zen bezala sorrera poetikoaren alorrean. Malherbe Oihenarten eredu zatekeen ez soilik bertsogintzaren teknikan, baizik eta hizkuntz garbitasunaren ere (Oihartzabal, 1993: 22), eta Oihenart era berean Pouvreauren autoritate nagusia zen, jakina denez⁷. Vaugelasek ildotiko garbizaletasunak XVIII. mendeko Euskalerrri kontinentalean eta batez ere Lapurdin jasotako harrera ona-

7. Dena den, Pouvreauren hiztegiaren iturriari dagokionez, Etxagibelen azterketa gogoan izan beharrekoa da. Ikertzaile horren arabera, iturri lexikografikoen artean Voltaire litzateke nagusia, eta...

ren zeharkako beste aztarna bat Martin Harrieten lan argitaratua izan liteke. Lan horretan sakontzeko tokia hau ez den arren, deigarria da ez soilik Harrieten *Grammatica* Vaugelasearen antzera antolatua izatea, baizik eta “Remarques sur la langue basque” atalaren izenburuak Vaugelasek bereari emandakoaren oihartzun ezin agerikoagoak erakustea ere⁸.

Hizkuntzari buruzko hausnarketari eta garaiko idazleen azterketari –Malherberi berari besteak beste– arreta jartzean Vaugelas ez da kezkatuta ageri italieratikako maileguez, moda hori XVI. mendearen amaieran bertan Henri Estiennek mugatu zuelako (Ayres-Bennett, 1987: 131). Euskaraz idazten zutenen artean, ordea, maileguak erabiltzeko ohitura oraindik sendoa zela, garbitasunaren kontzientzia garatzen zihoan heinean nahitaezkoa gertatuko zen maileguak garbitasun horren kontrako biziotsat jotzea. XVIII. menderako Etxeberri eta Larramendi bezalako garbizale prestuentzat egoera jasangaitza zen (ikus Lakarra, 1992: 306). Horien aurretik ere neologismoak sortzea izan zen Pouvrearen erantzuna. Eta ez sortzea soilik, baizik eta semantikoki oposatzea ere (*ontasun / onhasun, handitasun / handiresun*) *perspicuitas* edo argitasunaren bertuteari atxikitako propietatearen arauak eskatu bezala. Horretan ere Vaugelasek bezalatsu jokatu zuen (Ayres-Bennet, 1987: 130). Dena den, Pouvreau ondorengo ezaugarri biongatik nabarmenduko litzateke beraren aurreko idazle lapurtarren artetik eta era berean frantses garaikideen artetik: sorturiko neologismoen ugartitasunagatik eta neologismo horiek itzulpenetan erruz erabiltzeagatik. Horietako askok ez dute bizi luzea izan, Vaugelasek onartutakoei gertatu bezala (Marzys, 2008: 108), baina hizkuntzaren baliabideak ustiatzeko eredu bikaina eskaini zuten.

Usadioaren kariaz Haranederrek *handitasun / handiresun* gisako bereizketak berdindu egin ditu erabilienaren alde baina ez die horregatik muzinik egin Pouvreauk eskainitako beste askori. Eta Pouvrearenak ordezkatu dituenen ere (*berregintza* eta *ongikizun* hitzekin ikusi denez), orduan ere beste neologismo batzuek ordezkatu ditu, Larramendi garaikideak sorturikoez alegia. Hortaz, era batera nahiz bestera, Haraneder Pouvreau bezain garbizale dugu *Filotea* itzultzean: biak ala biak dira prozedura analogikoz sorturiko hitz berri eta ondare-osagaidunen hobesle, Haranederren sarrera adierazpenek usadio hutsean oinarrituriko garbitasunaren aldekoa zela pentsaraziko balute ere.

Itxura guztien arabera, Haranederren garairako Euskal Herri kontinentaleko idazleen artean usadio (*consuetudo* baina *consensum eroditorum* gisa) onartua zen nonbait maileguak mugatzea neologismoen mesedetan. Ibilbide horren hasieran Pouvrearen itzulpenak daude prosazko lanen artean. Hari zor zaio hein handi batean maileguak ordezkatu zitzaizketen neologismo multzo oparoaren sorrera, euskal kutsuko hitzen *copia* alegia. *Filotea* euskaratzea elokuzioaren garbitasuna ulertzeko era berezi honen laborategi aparta gertatu zen.

... iturri literarioen artean Axular, Oihenartek ere toki garrantzitsua duen arren. Edonola ere, itzulpen-gintzan bezala lexikografian “una cierta inclinación al purismo” ageriko du Pouvreauk (Etxagibel, 2008: 14).

8. Berriro ere *Oihenart* aldizkariaren ebaluatzaileetarikoki bati zor diot Harrieti buruzko iradokizuna. Jaso beza oraingoan ere nire eskerrik beroena.

4. LAN AIPATUAK

- AYRES-BENNETT, Wendy. *Vaugelas and the Development of the French Language*. Londres: The Modern Humanities Research Association, 1987.
- BIJUESCA, K. Josu. "Filotearen lehen itzulpenen *electio verborum*-erako hurbiltze saioa". In: *ASJU*, XLIII-1/2, 2009 [Beñat Oihartzabali Gorazarre – *Festschrift for Bernard Oyharçabal*]; 159-172. or.
- ETXAGIBEL, Javier. "Las fuentes del diccionario de S. Pouvreau". 2008. <http://www.ehu.es/monumenta/pdf/mintegia2008/Etxagibel-Las_fuentes_del_diccionario_de_S_Pouvreau.pdf>.
- EUSKALTZAINDIA. *Orotariko Euskal Hiztegia*. 2010. <<http://www.euskaltzaindia.net/oeh>>.
- FUMAROLI, Marc. *L'âge de l'éloquence*. Geneva: Droz, 2002.
- HARRIET, Martin. *Gramatica Escuaraz eta Francesez, composatua Francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*. Baiona: Fauvet, 1741.
- KEREJETA, M^a Jose. "Oihenart Silvain Pouvreauren hiztegia". In: *ASJU*, XXV-3, 1991; 865-899. or.
- KINTILIANO. *Institutionis oratorariae libri XII. Sobre la formación del orador. Doce libros*. Salamanca: Universidad Pontificia, 1999.
- LAKARRA, Joseba Andoni. "Larramendiren aurreko hiztegi-gintzaren historia: aztergai eta gogoeta". In: Lakarra, Joseba Andoni (ed.). *Manuel Larramendi hirugarren mendu-errena 1690-1990*. Andoain: Andoingo Udala, 1992; 279-312. or.
- . "Pouvreauren hiztegiez eta hiztegi-gintzaren historia". In: *ASJU*, XXIX-1, 1995; 3-52. or.
- . "Lexiko berrikuntza euskal hiztegi-gintza zaharrean: zenbait ikergai". In: *Uztaro*, 19, 1996; 3-40. or.
- LARRAMENDI, Manuel de. *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*. Donostia: Bartolomé Riesgo y Montero, 1745.
- LAUSBERG, Heinrich. *Manual de retórica literaria*. Madril: Gredos, 1966-1969.
- MARZYS, Zygmunt. "Vaugelas, disciple de Malherbe?". In: *Les fruits de la saison. Mélanges de littérature des XVI^e et XVII^e siècle offerts au Professeur André Gendre*. Textes réunis par Philippe Terrier, Loris Petris et Marie Jeanne Liengme-Bessire. Geneva: Droz, 2000; 411-420. or.
- . "Vaugelas et les néologismes". In: *Glissades: mélanges offerts à Alfons Pílorz à l'occasion de son 80^{ème} anniversaire*. Lublin: Wydawnictwo, 2008; 101-112. or.
- . "Introduction". In: Vaugelas, Claude Favre de. *Remarques sur la langue française*. Geneva: Droz, 2009; 13-56. or.
- OIHARTZABAL, Beñat. "Oihenart eta euskal letrak". In: *Jakin*, 74, 1993; 11-32. or.
- . "Statut et évolution des lettres basques durant les XVII^{ème} et XVIII^{ème} siècles". In: *Lapurdum*, 6, 2001; 219-287. or. <http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/06/81/45/PDF/Statut_evolution_lettres_basques_XVIIe_XVIIIe_siecles.pdf>.
- OIHENART, Arnaud. *Euskal atsotitzak eta neurtitzak*. Patxi Altunak eta Jose Antonio Mujikak paratua. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 2003.

PADILLA, Manuel. "Hazparneko euskara XVIII. mendeko testu argitaratugabe baten arabera". In: *Euskera*, 54; 183-192. or.

SALESKO, Frantses. *Philotea eta Chapeletaren Andra Dana Mariaren ohoretan devocionerequin erraiteco antcea*, itzul. S. Pouvreau. Paris: Claude Audinet, 1664.

—. *Philotea edo devocioneraco bide erakusçaillea*, itzul. J. de Haraneder. Tolosa Okzitania: Joannes-Françes Robert, 1749.

—. *Introduction à la vie devote*, 1619koaren arg. fak. Tours eta Paris: Mame eta Droz, 1934.

URGELL, Blanca. "Axular eta Larramendi". In: Lakarra, Joseba Andoni (ed.). *Manuel Larramendi hirugarren mendeurrena 1690-1990*. Andoain: Andoaingo Udala, 1992; 221-246. or.

URKIZU, Patrizio. "XVIII. mendean Larramendiren Hiztegi Hirukoitzak Iparraldeko zenbait idazlerengan duen eraginaz". In: Lakarra, Joseba Andoni (ed.). *Manuel Larramendi hirugarren mendeurrena 1690-1990*. Andoain: Andoaingo Udala, 1992; 313-324. or.

URQUIJO, Julio de. *El refranero vasco. Tomo I: Los refranes de Garibay*. Donostia: Imprenta de Martín, Mena y Compañía, 1919.